



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/12/21

Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak ia milioi bat euro hartzen dituen 12 zuzenketa-eske onetsi ditu Bizkaiko aurrekontu orokorretan

2018. urterako Bizkaiko Aurrekontu Orokorren Foru Arau Proiektuak, aste honetan Lurralde Historikoko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak egin dituan zortzi saioetan onetsi diran 12 zuzenketa-eske partzialek eragindako aldaketea jaso dau. Datorren eguenean Gernikan egingo dan Osokoan aurrekontuen proiektua Batzordetik urten dan moduan onesten bada, sartutako aldaketek, 979.000 euro gehiagoko gastua eragingo dabe Foru Aldundiko gobernu taldearen hasierako aurreikuspenean.

Guztira lau izan dira hasieran aurkeztutako aurrekontuagaz alderatuta aldaketak izan dituen sailak. Euskera eta Kulturako saila izan da aldaketa gehien jaso dituana: 490.000 euroko balioa daben sei zuzenketa-eske, hain zuzen be. Bere ostean Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna dago, 390.000 euro gehitzea eragingo daben lau zuzenketa-eske partzialen bitartez. Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko sailari jagokonez, 60.000 euroko partidea gehitu da Urdaibai Bird Center-erako. Bukatzeko, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Sailaren aurrekontuan, 50.000 euroko balioa daukan aldaketa bat onetsi da.

Bizkaiko Aurrekontu Orokorren Foru Arau Proiektua Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean, Batzar Nagusien osoko saioa baino ez da falta Lurralde Historikoko 2018ko kontuak onesteko. Saio hori Gernikako egoitza historikoan egingo da, datorren eguenean, abenduaren 28an.

NOTA DE PRENSA

21/12/2017

La Comisión de Economía y Hacienda aprueba 12 enmiendas por valor de casi un millón de euros en los presupuestos generales de Bizkaia

El Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales de Bizkaia para el año 2018 ha sido modificado por un total de 12 enmiendas, aprobadas a lo largo de las ocho sesiones que ha celebrado esta semana la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales del Territorio Histórico. De aprobarse el proyecto presupuestario tal como ha salido de la Comisión, en el Pleno a celebrar en Gernika el próximo jueves, los cambios introducidos supondrán un gasto adicional de 979.000 euros sobre la previsión inicial del equipo de gobierno de la Diputación Foral.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En total han sido cuatro los departamentos para los que se han aprobado cambios respecto al presupuesto inicialmente presentado. El área de Euskera y Cultura ha sido la que ha registrado el mayor número de modificaciones: seis enmiendas por valor de 490.000 euros. Le sigue Empleo, Inserción Social e Igualdad con cuatro enmiendas parciales que suponen una suma de 390.000 euros. Por su parte, el área de Sostenibilidad y Medio Natural ha añadido una partida de 60.000 euros para *Urdaibai Bird Center*. Por último, para el Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio se ha aprobado una modificación sobre su previsión de gasto inicial por valor de 50.000 euros.

Tras el paso del Proyecto de Normal Foral de Presupuestos de Bizkaia por la Comisión de Economía y Hacienda, la aprobación de las cuentas del Territorio Histórico para 2018 queda solo pendiente de la sesión plenaria de las Juntas Generales, que se celebrará en su histórico recinto de Gernika el próximo jueves 28 de diciembre.